tan salbuespen horretarako jarritako baldintzak betetzen dituen bitartean.

**Bigarrena. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako hobariak, jarduera hasteagatik.**

Foru arau hau indarrean sartzean, uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaz onartutako tarifen bigarren atalari egindako 1. ohar komunean lehen araututa zegoen jarduera hasteagatiko kuotako hobaria aplikatzen ari dira zenbait subjektu pasibo. Subjektu pasibo horiek, foru arau honetan xedatuari jarraituz zerga ordaintzetik salbuetsita ez badaude, hobari hori aplikatzen jarraituko dute, ohar komun horretan araututako baldintzetan, harik eta hobaria aplikatzeko dagokien aldia bukatzen zaien arte.

**Hirugarrena. Ondasun Higiezinen gaineko Zergako zerga onurak**

Foru arau hau indarrean sartzean onartuta dauden Ondasun Higiezinen gaineko Zergako zerga onurak, baldin onura horiez goza dezaketen kasuen artean jasota badago foru arau honetan, mantendu egingo dira; eta, eskaera bidezkoak baldin badira, ez da eskaera egin beharko. Iraungitze eguna arte mantenduko dira zerga horretan onartutako zerga onurak, nahiz eta foru arau honetan onurez goza dezaketen kasuen artean jasota ez egon. Hala ere, bada salbuespen bat: Toki Ogasunen Foru Arauko (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa) 4. artikuluko k) letran, honako foru arau honen aurretiko idazketan, xedatutako salbuespena, indarrik gabe geratu baita foru arau hau indarrean sartzean.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

1. Honako foru arau hau indarrean sartzen den egunetik aurrera, indargabetuta dago ondorengo arau hau:

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren tarifen (uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuan onartuak) bigarren ataleko 1. ohar komuna.

2. Orobat, indargabetuta geratzen dira foru arau honetako aginduen kontra egiten duten, agindu horien kontrakoa esaten duten edo agindu horiekin bateragarri ez diren arau guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**

Foru Arau hau 2004ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Hala ere, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Foru Arauko (uztailaren 19ko 43/1989 Foru Araua) 5.1 artikuluko b) eta c) letretan ezarritako salbuespenek, foru arau honetan emandako idazketarekin, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina. Eragina data beretik aurrera izango dute foru arau honen bidez uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arau horretan egindako aldaketek, baldin arestian aipatutako 5.1 artikuluko b) eta c) letretako salbuespenei eragiten badiete edo haiekin erlazionatuta badaude.

**Bigarrena.**

Arabako Foru Aldundiari aginpidea ematen zaio, foru arau hau garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko martxoaren 31a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

tanto el vehículo mantenga los requisitos fijados en la misma para tal exención.

**Segunda. Bonificaciones por inicio de actividad en el Impuesto sobre Actividades Económicas.**

En relación con los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas respecto de los cuales, a la entrada en vigor de esta Norma Foral, no estando exentos del pago del Impuesto con arreglo a lo dispuesto en la misma, se estuvieran aplicando la bonificación en la cuota por inicio de actividad anteriormente regulada en la nota común 1ª a la Sección Segunda, de las tarifas aprobadas por el Decreto Foral Normativo 573/1991, de 23 de julio, continuarán aplicándose dicha bonificación, en los términos previstos en la citada nota común, hasta la finalización del correspondiente período de aplicación de la bonificación.

**Tercera. Beneficios fiscales en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles**

Los beneficios fiscales en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles reconocidos a la entrada en vigor de la presente Norma Foral cuyos supuestos de disfrute se encuentren recogidos en la misma, se mantendrán sin que, en caso de que tengan carácter rogado, sea necesaria su solicitud. Se mantendrán hasta la fecha de su extinción aquellos beneficios fiscales reconocidos en dicho Impuesto cuyos supuestos de disfrute no se recogen en la presente Norma Foral, con excepción de la exención prevista en la letra k) del artículo 4 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales, en su redacción anterior a esta Norma Foral, que queda extinguida a su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

1. A partir de la fecha de entrada en vigor de esta Norma Foral, queda derogada la norma siguiente:

La nota común 1ª a la Sección Segunda de las tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobadas por el Decreto Foral Normativo 573/1991, del 23 de julio.

2. Asimismo, quedan derogadas cuantas otras normas se opongan, contradigan o resulten incompatibles con los preceptos de la presente Norma Foral.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**

La presente Norma Foral entrará en vigor el 1 de enero de 2004. No obstante las exenciones establecidas en el artículo 5.1 letras b) y c) de la Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Actividades Económicas, en la redacción dada por la presente Norma Foral, producirán efectos desde el 1 de enero de 2003. Igual producción de efectos tendrán las modificaciones introducidas por esta Norma Foral en la citada Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, en cuanto afecten o se relacionen con las exenciones del artículo 5.1 letras b) y c) anteriormente señaladas.

**Segunda.**

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

Vitoria-Gasteiz, 31 de marzo de 2003.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2.490**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2003ko martxoaren 31an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi zuten:

13/2003 FORU ARAUA, MARTXOAREN 31KOA, EKAINAREN 25EKO 20/90 FORU ARAUA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEENA, LEHENBIZIKO ALDIZ ALDATZEN DUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Urriaren 30eko 15/87 Foru Arauak, ekonomia jardueren kudeaketari eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoei buruzkoak, xedatzen duenaren arabera, Aldundiak zerbitzu publikoak kudeatzeko zuzeneko erak (kudeaketa propioa edo Sailarena, erakunde autonomiaduna eta foru sozietate publikoa) eta zeharkako erak (emakida, kudeaketa interesatua, hitzarmena, errentan ematea, merkataritza-sozietatea eta kooperatiba) erabil ditzake.

Hala ere, ekainaren 25eko 20/90 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko errepideena, Foru Aldundiak arlo honetan duen tradizio

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2.490**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 31 de marzo de 2003, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 13/2003, DE 31 DE MARZO, DE PRIMERA MODIFICACIÓN DE LA NORMA FORAL 20/90, DE 25 DE JUNIO, DE CARRETERAS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Norma Foral 15/87, de 30 de octubre, sobre gestión de actividades económicas y sobre servicios públicos forales descentralizados dispone que la Diputación puede gestionar los servicios públicos a través de las formulas directas (Gestión propia o departamental, Organismo Autónomo y Sociedad Pública Foral) e indirectas (concesión, gestión interesada, concierto, arrendamiento, sociedad mercantil y sociedad cooperativa).

A pesar de ello, la Norma Foral 20/90, de 25 de junio, de carreteras de Territorio Histórico de Álava, siguiendo la tradición inter-

interbentzionistari jarraituz, urriaren 30eko 15/87 Foru Arauan ezarritakotik urruntzen da, eta xedatzen du errepideen hobekuntza eta ustiapena (zaintza eta mantentzea) eta haien babeserako ekintzak Aldundiak berak egingo dituela zuzenean, eta finantzaketa publikoa (berea eta beste administrazio batzuena) ohizkoa izango dela Lurralde Historikoko errepide sareetan ekintzak gauzatzeko, finantzaketa pribatua salbuespenezko kasuetan bakarrik onartzen duelarik.

Gaur egun, interes orokorreko jardueretan partikularrek eta administrazioek parte hartzeak partaidetza pribatuarentzat itxita zeuden zenbait administrazio eremu ireki dizkio hari. Beraz, une egokia da hau errepideen foru arautegia gaurkotzeko, baliabide pribatuak lortzeko eta zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketarako teknikak erabiltzeko bere buruari ezarritako mugak ezabatuz.

Foru Arau honen xedea hori delarik, aldaketa Arabako Lurralde Historikoko errepideen ekainaren 25eko 20/90 Foru Arauaren 29. eta 30. artikuluetan egiten da. Bi artikulu horiek, errepideen finantzaketa eta ustiapenaren ingurukoak (zaintza eta mantentzea), berridatzi egiten dira, errepideetako hainbat motatako ekintzak gauzatzeko finantzaketa pribatua onartuz eta zerbitzuak kudeatzeko zeharkako bideak baimenduz. Bide batez, aldaketa honetaz baliatuz, zehaztasun handiagoz definitzen da errepideen ustiapenaren edukia.

**1. artikulua. Berridazten da Arabako Lurralde Historiko errepideen ekainaren 25eko 20/90 Foru Arauaren 29. artikulua. Jarraian bezala geratuko da**

"29. artikulua.- Finantzaketa.

1.- Arabako Lurralde Historikoko errepide sareetan egiten diren ekintzen finantzaketa, Lurralde Historikoaren aurrekontuetan helburu horrekin jasotzen diren kontsignazioen bidez egingo da, baita beste administrazio publikoetatik eta, salbuespenez, partikularrengatik etorritako baliabideekin ere.

2.- Herrilanen emakida kontratuen bidez edo zeharka kudeatzeko edozein eraren bidez edo foru sozietate publiko baten bitartez egin eta ustiatu beharreko errepideak, entitate esleipendunen baliabide propioekin, beraiek mugiarazten dituzten besteren baliabideekin eta eman litezkeen transferentziekin finantzatuko dira."

**2. artikulua.- Berridazten da Arabako Lurralde Historiko errepideen ekainaren 25eko 20/90 Foru Arauaren 30. Artikulua. Jarraian bezala geratuko da:**

"30. Artikulua.- Errepideen ustiapena.

1.- Foru Arau honen 9. artikuluan xedatutakoa gorabehera, errepideen ustiapena Arabako Foru Aldundiak egingo du urriaren 30eko 15/87 Foru Arauan, jarduera eta foru zerbitzu publiko deszentralizatuenean, ezarritako zuzeneko kudeaketa bitartez eta salbuespenez, zeharkako kudeaketa egingo du bidesariko autobideetan, eta zaintza eta mantentze lanak egiteko hitzarmenak egin ahal izango ditu errepideen titularrak diren udal eta kontzejuekin.

2.- Errepideen ustiapenaren barruan, zaintza eta mantentze lanak eta bidea babesteko eta hobeto erabiltzeko helburua duten ekintzak daude, seinalizazioarekin, sarbideen antolaketarekin eta jabari publikoko, zortasuneko eta afekzioko zonen erabilerarekin loturikoak barne direlarik.

3.- Zaintza eta mantentze lanen barruan, bide ondarea ahalik eta egoera hoberenean mantentzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak daude. Errepidea babesteko ekintzen barruan, errepideari berari, bere helburuari edo bere eraginpeko zonen helburuari kalte egitea galaratzeko behar direnak daude. Errepidea hobeto erabiltzeko ekintzen barruan, errepidea segurtasun, jariotasun eta erosotasun kondizio egokietan erabiltzea bermatzeko helburua dutenak daude."

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitara eman ondoko egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 1a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

vencionista de la Diputación Foral sobre esta materia, se separa de lo establecido en la Norma Foral 15/87, de 30 de octubre, y dispone que la mejora y explotación de las carreteras (conservación y mantenimiento), así como las actuaciones encaminadas a su defensa serán realizadas directamente por la Diputación, y que la financiación pública (propia y de otras Administraciones) será la ordinaria para la realización de las actuaciones en las redes de carreteras del Territorio Histórico, admitiendo solo en supuestos excepcionales la financiación privada.

Hoy en día, la concurrencia de particulares y Administraciones en actividades de interés general ha abierto a la participación privada ámbitos administrativos que le eran restringidos, siendo este un momento oportuno para actualizar la normativa foral de carreteras eliminando las limitaciones autoimpuestas para la obtención de recursos privados y la utilización de las técnicas de gestión indirecta de los servicios públicos.

Siendo este el objeto de esta Norma Foral la modificación afecta a los artículos 29 y 30 de la Norma Foral 20/90, de 25 de junio, de carreteras del Territorio Histórico de Álava, dedicados a la financiación y a la explotación (conservación y mantenimiento) de las carreteras, que se redactan en el sentido de admitir la financiación privada y de permitir las formulas de gestión indirecta de servicios para la realización de las diferentes actuaciones en las carreteras, aprovechando la oportunidad de la modificación para definir con mayor precisión el contenido de la explotación de las carreteras.

**Articulo 1º: Se da nueva redacción al artículo 29 de la Norma Foral 20/90, de 25 de junio, de carreteras del Territorio Histórico de Álava, que quedará redactado como sigue:**

"Articulo 29.- Financiación

1.- La financiación de las actuaciones en las redes de carreteras del Territorio Histórico de Álava se realizará mediante las consignaciones que a tal efecto se incluyan en los Presupuestos del Territorio Histórico, y mediante los recursos que provengan de otras Administraciones Públicas y, excepcionalmente, de particulares.

2.- Las carreteras a construir y explotar en virtud de contratos de concesión de obras públicas o de cualquier formula de gestión indirecta, o a través de una sociedad Pública Foral, se financiarán mediante los recursos propios de las entidades adjudicatarias, los ajenos que estas movilicen y las trasferencias que pudieran otorgarse."

**Artículo 2.- Se da nueva redacción al artículo 30 de la Norma Foral 20/90, de 25 de junio, de carreteras del Territorio Histórico de Álava, que quedará redactado como sigue:**

"Articulo 30.- Explotación de las carreteras

1.- Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 9 de esta Norma Foral, la explotación de las carreteras se realizará por la Diputación Foral de Álava a través de cualquiera de las formulas de gestión directa o excepcionalmente de gestión indirecta en el supuesto de autopistas de peaje, establecidas en la Norma Foral 15/87 de 30 de octubre, de actividades y servicios públicos forales descentralizados, pudiendo formalizar convenios para realizar las obras de conservación y mantenimiento con los Ayuntamientos y Concejos titulares de las carreteras.

2.- La explotación de las carreteras comprende las operaciones de conservación y mantenimiento, las actuaciones encaminadas a la defensa de la vía y a su mejor uso, incluyendo las referentes a señalización, ordenación de accesos y uso de las zonas de dominio público, de servidumbre y de afección.

3.- Las operaciones de conservación y mantenimiento incluyen todas las actuaciones necesarias para preservar en el mejor estado posible el patrimonio viario. Las actuaciones de defensa de la carretera incluyen las necesarias para evitar que perjudiquen a la misma, a su función o de la de sus zonas de influencia. Las actuaciones encaminadas al mejor uso en la carretera incluyen las destinadas a facilitar su utilización en condiciones de seguridad, fluidez y comodidad adecuadas."

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2003.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.